

Xedapen Orokorrak

KULTURA SAILA

767

16/2006 DEKRETUA, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Autonomia Estatutuko 10.36 artikuluari jarraikiz, eskumen eskusiboa du kirolaren gaian. Eskumen hori erabiliz, Eusko Legebiltzarak 14/1998 Legeak onartu zuen (1998ko ekainaren 11koa, Euskadiko Kirolarena).

Dekretu honek 14/1998 Lege hori garatzen du federazioen arloan, eta hala, bada, indarrean den 265/1990 Dekretua (1990eko urriaren 9koa, kirol federazioen eraketa eta funtzionamendua arautzen dituen) ordezkatzeko du. Izan ere, azken dekretu hori dagoeneko indargabeturik dagoen 5/1988 Legean oinarri hartuta onartu zen.

Xedapen honen bidez 14/1998 Legean ezarritako federazio ereduak garatu nahi da, eta, era berean, egun arte indarrean den dekretua aplikatzean sorturiko arazoei irtenbidea eman nahi zaie.

Dekretuak xehetasunez arautzen ditu kirol federazioen funtzio publikoak. Dekretuak —abiapuntu gisa, kirol federazio bakoitzak bere burua antolatzearen printzipioa erabat errespetatzen duela— arautze osoa egin asmo du federazioek eskuordetuta dituzten administrazio funtzio publikoei lotutako alderdiei buruz. Arautze hori erabat justifikatzen du federazioek Administrazioaren agente laguntzaile gisa dihardutenean izaten diren interes publikoak babestu beharrak. Kirol federazioen artean sorturiko auzi ugarien ondoren, Euskadiko federazioek eta lurraldeko federazioek bete beharreko funtzioak banatzeko erregimena argitzea erabaki da. Halaber, zuhurtziazko neurriak hartzei buruzko erregimena landu da, funtzio publikoak egoki betetzen direla bermatzearen. Gainera, hainbat mekanismo ezarri da kirol federazioen arteko auziak ebazteko.

Dekretuan, ahalegina egin da federazio lizentzien inguruan: argitu egin dira lurraldeko eta Euskadiko federazioen funtzioak, lizentziak ematean eta izapidetzean; ezarri egin da lizentziak, nahitaez, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan idatzita eman behar direla; jaso egin da egungo formatuak gutxiak aldatu beharko direla eta, haien ordeztu, informazioaren teknologiek eskaintzen dituzten aukera aparte egokituriko beste formatu batzuk erabili beharko direla.

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE CULTURA

767

DECRETO 16/2006, de 31 de enero, de las Federaciones Deportivas del País Vasco.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, de acuerdo con el artículo 10.36 del Estatuto de Autonomía, ostenta competencia exclusiva en deporte. En ejercicio de este título competencial, el Parlamento Vasco aprobó la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco.

El presente Decreto desarrolla, en materia de federaciones deportivas, dicha Ley 14/1998, sustituyendo así el vigente Decreto 265/1990, de 9 de octubre, de constitución y funcionamiento de las federaciones deportivas, aprobado sobre la base de la antigua Ley 5/1988, ya derogada.

Con esta disposición se pretende desarrollar el nuevo modelo federativo diseñado en la Ley 14/1998 y, al mismo tiempo, dar respuesta a los diversos problemas suscitados con la aplicación del Decreto vigente hasta la fecha.

El Decreto aborda con detalle la regulación del ejercicio de las funciones públicas por las federaciones deportivas. El Decreto, que parte de un absoluto respeto a los principios autoorganizativos de las federaciones deportivas, trata de efectuar una completa regulación de aquellos aspectos relacionados con las funciones públicas de carácter administrativo que tienen delegadas, regulación plenamente justificada en la protección de los intereses públicos presentes en su actuación como agentes colaboradores de la Administración. Tras los numerosos conflictos suscitados entre las federaciones deportivas se ha optado por clarificar el régimen de distribución de funciones a desarrollar por las federaciones vascas y territoriales. Asimismo, se aborda todo el régimen relativo a la adopción de medidas cautelares para garantizar el correcto ejercicio de funciones públicas y se articulan diferentes mecanismos para resolver los conflictos entre las federaciones deportivas.

En el Decreto se realiza un esfuerzo en materia de licencias federativas: se clarifican las funciones de las federaciones territoriales y vascas en materia de emisión y tramitación de licencias; se establece la obligatoriedad de que las licencias sean emitidas en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi; se contempla la progresiva sustitución de los actuales formatos por otros ajustados a las extraordinarias posibilidades que brindan las nuevas tecnologías de la información.

Dekretu honen asmoa da lehiaketa ofizialak, federazio egutegiak, Euskadiko selekzioak eta antzeko gaiak arautzea. Orain indarrean den dekretuan, nolabait, ez ziren kontuan hartu gai horiek, eta arautu egin behar ziren, egun arte agertu diren akatsak eta dudak gainditzearen. Kirol federazioen egutegi ofizialak onartzeari dagozkion gaiak, bai eta horien ondorioek ere, berreko araudia dute. Halaber, kirol lehiaketetan asko agertzen den egoera hau arautu dela nabarmendu behar da: lehiaketa mistoak, federatutako zein federatu gabeko parte-hartzaileak dituztenak, alegia. Indarrean den dekretuaren hutsuneak betetzeko asmo berari jarraituz, dekretu berriak lehiaketen piramide egiturari dagozkion alderdiak arautu ditu.

Dekretuak oinarrizko irizpideak ematen ditu kirol modalitate eta diziplinak onartzeko, eta federazio bakoitasunaren erregimena ezarriko du kirol modalitate bakoitzerako. Haren berritasunetako bat da federazio batek kirol modalitate bat baino gehiago barne hartu ahal izango duela, interes publikoko arrazoiak daude.

Xedapen berri honetan, lehen aldiz ezarri dira kirol modalitateak eta diziplinak onartzeko irizpideak; horretarako, erreferentziatzat hartu dira autonomia erkidegoan, Estatuan zein nazioartean badiren arauzko testuak eta proposamenak. Kirol antolatua ez da bere inguruetik bakartuta eduki behar. Horrekin batera, dekretuak badakar kirol modalitateen eta diziplinen katalogoa duen eranskina.

Lehendabiziko aldiz berariaz arautzen dira zenbait federazio errealtate, hala nola fusio bidez federazioak eratzea, bai eta federazioak zatituz edo xurgatuz eratzea ere. Orobat, kirol federazioen eratzeari administrazio onspena ematearen erregimena egokitu egin zaio 14/1998 Legeak Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien artean egiten duen eskumen banaketari.

Dekretuak lantzen duen beste gai bat federazio estatutuak dagokion aldizkari ofizialean argitaratzearen ondorioena da. Horretarako, kirol munduan ahaztuxea dagoen oinarrizko printzipio juridiko bat hartzen da abiaburu: arauen publikitatea haien izatearen eta ondorioen funtsezko betekizuna da. Arauzkotasunaren arlo horretan, aipatzekoa da federazioen zirkularren ezaugarri juridikoen arazoak arautzen saiatzen dela. Izan ere, aurre egiten dio figura hori iruzurrez erabilita benetako arautegiak estaltzeko arautegiari (iruzur horren bidez, administrazio onspenaren izapidea saihesten da).

Egitura organikoaren gaian, ekarpen nabarmenatariko bat Zuzendaritza Batzordeko kideen eta lehendakarien agintaldiak mugatzea da. Mugatze hori kirol federazioen euren estatutu edo arautegietan agertu behar da. Horretarako, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia izan da kontuan, federazio antolakundearen dina-

El Decreto trata de regular cuestiones como las competiciones oficiales, los calendarios federativos y las selecciones vascas. Estas cuestiones pasaron, en cierto modo, desapercibidas en el vigente Decreto y resultan acreedoras a una regulación que permita superar los errores y las dudas manifestados hasta la fecha. Las cuestiones atinentes a la aprobación y contenido de los calendarios oficiales de las federaciones deportivas, así como sus efectos, disponen de regulación propia. Asimismo, merece reseñar que se regula una realidad muy presente en el mundo de las competiciones deportivas: las competiciones mixtas con la participación de federados y no federados. Con el mismo propósito de cubrir las lagunas detectadas en la vigente disposición, el nuevo Decreto reglamenta aspectos relacionados con la estructura piramidal de las competiciones.

El Decreto, que contiene la fijación de los criterios básicos para el reconocimiento de modalidades y disciplinas deportivas, establece el régimen de unicidad federativa para cada modalidad deportiva y una de sus novedades es la posibilidad de que una federación, por razones de interés público, pueda tener adscrita más de una modalidad deportiva.

En esta nueva disposición se establecen, por primera vez, los criterios para el reconocimiento de modalidades y disciplinas deportivas, tomando como referencia los textos normativos y propuestas existentes tanto a nivel autonómico, estatal e internacional. El deporte organizado no es una realidad que debe aislarse de su contexto. Junto a ello el Decreto incorpora un anexo con el Catálogo de modalidades y disciplinas.

Se regulan expresamente por primera vez realidades federativas como son la constitución de federaciones por fusión, así como la constitución por escisión o la absorción de federaciones. Asimismo, el régimen de aprobación administrativa de la constitución de federaciones deportivas se ha acomodado al reparto competencial entre el Gobierno Vasco y las diputaciones forales que efectúa la Ley 14/1998.

Otra de las cuestiones que aborda el Decreto es la de los efectos de la publicación de los estatutos federativos en el boletín oficial correspondiente. Para ello se parte de un principio jurídico básico, bastante ignorado en el mundo del deporte, la publicidad de las normas es un requisito esencial de su existencia y efectos. En este ámbito de la normatividad, cabe apuntar que el problema de la caracterización jurídica de las circulares federativas se trata de regular haciendo frente a una costumbre de utilizar fraudulentamente dicha figura para encubrir auténticos reglamentos, eludiendo el trámite de la aprobación administrativa.

En materia de estructura orgánica una de las aportaciones relevantes es la limitación de los mandatos de las y los Presidentes y de las y los miembros de la Junta Directiva, limitación que se encomienda a los estatutos o reglamentos de las propias federaciones deportivas. Para ello se ha tenido en cuenta la jurisprudencia

mismoa eta eraginkortasuna bermatzea helburu duen mugatze horren aukerari abala ematen baitio. Federazio kirolari berriak etorrita, ideiak berritzea eta kirolaren antolamenduan haratagoko mugak lortzea ahalbidetzen du; eta, halaber, ohikeriaren eta berezko immobilismo eta nekearen joera saihestea du helburu.

Xedapen hau oso sentibera da kirol federazioen baitan kirol boluntarioek duten funtsezko rolari dagokionez, eta, bereziki, haren zuzendaritzako langileen rolari dagokionez. Dekretu hau aukera aparta da, zuzendarien eta federazioen arteko harremanak definitzeko, haien eskubide eta betebeharrak lantzeko, edota, adibidez, haien erantzukizun erregimena zehazteko.

Dekretu honen ekarpenetako bat da kirol federazioen onarpen ofiziala ezeztatzeari buruzko guztia arautzea. Ezeztatze hori 14/1998 Legeko 35. artikuluan jasota dago. Berebat, kirol federazioak desegitearen, likidatzearen eta iraungitzearen gai korapilatsuak, orain arte, artikulatu bakarrik ez du izan, eta nahasmen argia izan du kontzeptu horien eta desegitearen kausa eta moduen artean. Aipamen berezia merezi du federazioen likidazioko fasearen erregimenak; aurrerantz, beharrezko xedapenak izango ditu.

Kirolaren Euskal Planean bildutako diagnostikoa eta proposamenak aintzat hartuz, dekretuak titulu oso bat du Euskadiko kirol federazioen baitako hizkuntza normalizazioari buruz. Euskara, autonomia erkidegoko hizkuntza ofizial gisa, pixkanaka-pixkanaka ohiko komunikazio tresna bihurtu behar da Euskadiko kirol federatuaren esparruan. Horregatik, xedapen honekin, helburu hori erdiesteko esparru juridikoa sortu nahi da; betiere, egun, kirol federazioetan dagoen egoera sozio-linguistikoa abiapuntu hartuta.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboetarako III. Plana. Generoaren ikuspegia politika publikoetan deritzon dokumentua (Eusko Jaurlaritzak 1999ko abenduaren 21ean onartu zuen) aintzat hartu da, eta dekretuan zehar, kirol federazio eta babes administrazio publikoentzako jardun printzipio gidariak sartu dira, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra erdieste aldera. Artikuluetan xedatutakoaz gain, dekretuak titulu oso bat du Euskadiko kirol federazioen baitan emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunari buruz.

Hitz batean, dekretu honekin, egun, Euskal Autonomia Erkidegoko kirol egituraren oinarritzko zutabeetako bat arautu nahi da.

cia del Tribunal Supremo que avala tal posibilidad de limitación tendente a garantizar el dinamismo y la eficacia en la organización federativa. La llegada de nuevos federativos y federativas permite conseguir renovadas ideas y progresivas fronteras a alcanzar en la organización del deporte y, asimismo, trata de evitar la tendencia a la rutina y al inmovilismo y el cansancio natural.

La presente disposición se muestra muy sensible al papel esencial del voluntariado deportivo en el seno de las federaciones deportivas y, muy especialmente, al papel de su personal directivo. El presente Decreto constituye una excelente ocasión para definir la relación entre las y los directivos y las federaciones, abordar sus derechos y obligaciones o, por ejemplo, definir su régimen de responsabilidad.

Una de las contribuciones del Decreto es la regulación de todo lo relativo a la revocación del reconocimiento oficial de las federaciones deportivas, prevista en el artículo 35 de la Ley 14/1998. Asimismo, el complejo tema de la disolución, liquidación y extinción de las federaciones deportivas ha contado hasta la fecha con un solo artículo y viene padeciendo una clara confusión entre dichos conceptos y las causas y modos de disolución. Mención especial merece el régimen de la fase de liquidación de las federaciones que cuenta, a partir de ahora, con las disposiciones necesarias.

El Decreto, haciéndose eco del diagnóstico y de las propuestas contenidas en el Plan Vasco del Deporte, incluye todo un Título dedicado monográficamente a la normalización lingüística en el seno de las federaciones deportivas del País Vasco. El euskera, como lengua oficial de la Comunidad Autónoma, debe convertirse progresivamente en un medio de comunicación normal en la organización del deporte federado vasco. Y desde este planteamiento la presente disposición trata de crear el marco jurídico propicio para ello, partiendo en todo caso de la actual realidad socio-lingüística en el seno de las federaciones deportivas.

Finalmente, atendiendo al documento «III Plan de Acción Positiva para las mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Enfoque de género en las Políticas Públicas», aprobado por este Gobierno el 21 de diciembre de 1999, y en aras de conseguir una igualdad de oportunidades real y efectiva entre mujeres y hombres, se han incluido a lo largo del Decreto diversos principios rectores de actuación de las federaciones deportivas y de las administraciones públicas de tutela. Además de los diferentes artículos repartidos a lo largo del articulado, el Decreto incorpora un Título dedicado en exclusiva a la igualdad de mujeres y hombres en el campo de las federaciones deportivas.

En definitiva, con el presente Decreto se aborda el desarrollo reglamentario de uno de los pilares básicos de la actual organización del deporte en nuestra Comunidad Autónoma.

Horregatik guztiagatik, Kultura sailburuak hala proposatuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari entzunda, eta 2006ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran Jaurlaritzaren Kontseiluak eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATU DUT:

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.— Dekretuaren xedea eta aplikazio eremua.

1.— Dekretu honen xedea da Euskadiko kirol federazioen erregimena arautzea.

2.— Dekretua ez zaie aplikatuko autonomia erkidegoaz gaindiko eremua hartzen duten kirol federazioei, egoitza soziala Euskadin izanda ere.

2. artikulua.— Definizioa.

1.— Dekretu honen ondorioetarako, kirol federazioak dira irabazteko asmorik gabeko eta nortasun juridiko propioa duten erakunde pribatuak, euren eskudantziez gain, administrazio funtzio publikoak betetzen dituztenak, eta euren lurralde eremuko kirolariak, teknikariak, epaileak, klubak, kirol elkarteak, edo kirola —modalitate batean edo gehiagotan— egiten edo bultzatzen aritzen diren beste talde batzuk barne hartzen dituztenak.

2.— Kirol federazioa izendapena dekretu honetan haxe izendatzen diren erakundeei baino ez zaie emango. Debekaturik dago izendapen horixe edo nahastea sor dezakeen antzeko izendapenik erabiltzea.

3. artikulua.— Erregimen juridikoa.

Honako hauek arautzen dituzte kirol federazioak: 1998ko ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Kirolaren Legeak; dekretu honek eta garatuko duten xedapenek; federazio bakoitzaren estatutuek eta arautegiek, eta federazio bakoitzeko organoek balioz hartutako erabakiek.

4. artikulua.— Oinarrizko antolamendua eta lurralde eremua.

1.— Euskadiko kirol federazioak lurraldeko federazioetan eta Euskadiko federazioetan antolatuta daude.

2.— Lurraldeko federazio bakoitzaren oinarrizko jardun eremua dagokion lurralde historikoa da, nahiz eta hortik kanpo ere jarduerak egin ditzakeen.

3.— Euskadiko federazioen oinarrizko jardun eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da, nahiz eta hortik kanpo ere jarduerak egin ditzaketen.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Cultura, oída la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno el día de 31 de enero de 2006,

DISPONGO:

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.— Objeto del Decreto y ámbito de aplicación.

1.— El objeto del presente Decreto es regular el régimen de las federaciones deportivas del País Vasco.

2.— El Decreto no será de aplicación a las federaciones deportivas de ámbito superior al de la Comunidad Autónoma, aunque cuenten con su domicilio social en el País Vasco.

Artículo 2.— Definición.

1.— A los efectos de este Decreto, las federaciones deportivas son entidades privadas, sin ánimo de lucro y con personalidad jurídica, que ejercen, además de sus propias atribuciones, funciones públicas de carácter administrativo y reúnen a deportistas, técnicos y técnicas, jueces y juezas, clubes o agrupaciones deportivas y otros colectivos dedicados a la promoción o la práctica deportiva de una o varias modalidades deportivas, dentro de su ámbito territorial.

2.— La denominación de federación deportiva queda reservada exclusivamente a las entidades que con tal denominación se regulan en este Decreto. Queda prohibida la utilización de cualquier denominación idéntica o análoga que pueda inducir a confusión.

Artículo 3.— Régimen jurídico.

Las federaciones deportivas se rigen por la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte, por lo previsto en el presente Decreto y demás disposiciones de desarrollo, por sus estatutos y reglamentos y por los acuerdos válidamente adoptados por sus órganos.

Artículo 4.— Organización básica y ámbito territorial.

1.— Las federaciones deportivas del País Vasco se organizan en federaciones territoriales y federaciones vascas.

2.— El ámbito básico de actuación de las federaciones territoriales se extiende al Territorio Histórico correspondiente, sin perjuicio de aquellas actividades que puedan realizar fuera de él.

3.— El ámbito básico de actuación de las federaciones vascas se extiende al territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, sin perjuicio de aquellas actividades deportivas que puedan realizar fuera de él.

5. artikulua.– Jardun printzipio gidariak.

Kirol federazioek honako printzipio hauek betez jardungo dute: eraginkortasuna, koordinazioa, deszentralizazioa, elkarren arteko lankidetzeta eta Euskadiko administrazioekiko lankidetzeta.

6. artikulua.– Administrazio publikoen babesa eta laguntza.

1.– Dekretu honen arabera eratuko diren Euskadiko kirol federazioek babes eta laguntza berezia jasoko dute Euskadiko administrazioen eskutik.

2.– Euskadiko administrazioek kirol federazioei baioitzaren jarduera aurrera eramateko behar dituzten laguntza ekonomikoa eta teknikoa emango dizkiete; betiere, administrazioek euren aurrekontuetan xedatutako horniduren arabera eta dituzten giza baliabideen eta baliabide materialen arabera.

3.– Euskadiko administrazioek laguntza eta berme berezia eman beharko diete kirol federazioei, bertako kirolak sustatzearen.

4.– Euskadiko administrazioek laguntza eta berme berezia eman beharko diete kirol federazioei, kirol guztietan emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzearen.

7. artikulua.– Araubide juridikoa betetzea.

1.– Kirol federazioek euren jarduera beti araubide juridikoa, euren estatutuak eta euren arautegiak betez eraman beharko dute aurrera.

2.– Administrazio publikoak bertan behera utzi edo baliogabetu ahal izango ditu kirol federazioek, administrazio funtzio publikoak betetzean, hartutako erabakiak eta adostutako egintzak, baldin araubide juridikoaren kontrakoak edo haien estatutuen eta arautegien kontrakoak badira. Horretan, administrazio publikoak legetan eta arautegietan horretarako xedatuta dauden kasuak eta prozedurak aintzat hartuko dituzte. Aurrekoa gorabehera, agintari judizial aginpidedunek ere federazioen erabakiak eta egintzak bertan behera utzi eta baliogabetu ahal izango dituzte.

II. TITULUA

KIROL FEDERAZIOEN FUNTZIOAK

8. artikulua.– Lurraldeko federazioak.

Lurraldeko federazioek euren kirol modalitateari dagokion lurralde eremuko kirol jarduera eta lehiaketak bultzatzen, kalifikatzen, baimentzen, arautzen eta antolatzen dituzte.

9. artikulua.– Euskadiko federazioak.

Euskadiko federazioek euren kirol modalitateari dagokion autonomia erkidegoko eremuko kirol jardue-

Artículo 5.– Principios rectores de actuación.

Las federaciones deportivas actuarán de acuerdo con los principios de eficacia, coordinación, descentralización y colaboración entre sí y con las administraciones del País Vasco.

Artículo 6.– Protección y apoyo por las administraciones públicas.

1.– Las federaciones deportivas del País Vasco constituidas conforme a lo dispuesto en el presente Decreto serán objeto de especial protección y apoyo por parte de las administraciones del País Vasco.

2.– Las administraciones del País Vasco proporcionarán a las federaciones deportivas, dentro de las dotaciones que al efecto establezcan sus propios presupuestos y en el marco de sus recursos humanos y materiales, el apoyo económico y la asistencia técnica que resulten necesarios para el desarrollo de sus actividades propias.

3.– Las administraciones del País Vasco deberán prestar especial atención y apoyo a las federaciones deportivas para la promoción de las modalidades autóctonas.

4.– Las Administraciones del País Vasco deberán prestar especial atención y apoyo a las federaciones deportivas para la promoción de la igualdad de mujeres y hombres en las distintas modalidades deportivas.

Artículo 7.– Sujeción al ordenamiento jurídico.

1.– Las federaciones deportivas deberán ajustar su actuación en todo momento al ordenamiento jurídico y a sus estatutos y reglamentos.

2.– Los acuerdos y los actos de las federaciones deportivas en el ejercicio de las funciones públicas de carácter administrativo que sean contrarios al ordenamiento jurídico, o a sus estatutos y reglamentos, podrán ser suspendidos o anulados por la Administración Pública con arreglo a los supuestos y procedimientos legales y reglamentarios previstos al efecto. Lo anterior se entiende sin perjuicio de la facultad de suspensión y anulación de los acuerdos y actos federativos por la autoridad judicial competente.

TÍTULO II

FUNCIONES DE LAS FEDERACIONES DEPORTIVAS

Artículo 8.– Federaciones territoriales.

Las federaciones territoriales impulsan, califican, autorizan, ordenan y organizan las actividades y competiciones deportivas oficiales de ámbito territorial de su modalidad deportiva.

Artículo 9.– Federaciones vascas.

Las federaciones vascas impulsan, califican, autorizan, ordenan y organizan las actividades y competicio-

ra eta lehiaketak bultzatzen, kalifikatzen, baimentzen, arautzen eta antolatzen dituzte.

10. artikulua.— Euskadiko kirolaren ordezkariak.

1.— Euskadiko federazioek Euskadiko kirol federatua ordezkatzeko dute Estatuan eta nazioartean.

2.— Lurraldeko federazio guztiek euren kirol modalitateari dagokion Euskadiko federazioaren barruan egon beharko dute.

11. artikulua.— Lurraldeko federaziorik edo Euskadiko federaziorik ez egotea.

1.— Lurralde historiko batean ez badago kirol modalitate baterako lurraldeko federaziorik, Euskadiko federazioak hartuko ditu bere gain lurraldeko federazioei dagozkien funtzio guztiak, eta bete egin beharko ditu. Euskadiko federaziorik egon ezean, Foru Aldundiak kirol erakunde bat gaitu ahal izango du, berrizta daitekeen bi urteko gehieneko epe baterako, lurraldeko federazioari dagozkien funtzio publikoak bete ditzan.

2.— Kirol modalitate jakin batean Euskadiko federaziorik egon ezean, Eusko Jaurlaritzak lurraldeko federazio bat —edo, bestela, beste edozein kirol erakunde— gaitu ahal izango du, berrizta daitekeen bi urteko gehieneko epe baterako, Euskadiko federazioari dagozkien funtzio publikoak bete ditzan.

3.— Administrazio funtzio publikoak bete ditzan, kirol erakunde bat gaitu baino lehen, Euskadiko Kirol Kontseiluak txostena egin beharko du, bere Batzorde Iraunkorraren bidez.

12. artikulua.— Lurraldeko federazioen funtzioak.

Lurraldeko federazioek honako funtzio hauek dituzte:

a) Kirol jarduera federatua antolatzea euren lurralde eremuan.

b) Lehiaketa eta jarduera ofizialak antolatzea euren lurralde historikoan, euren kirol modalitateari dagozkion kirol diziplina guztietarako.

c) Parte hartzeko eta lehiatzeko euren arauak ezartzea; betiere, haien eremuaz gaindiko lurralde eremua duten federazioek ezarritako arauak betez, hala dago-kionean.

d) Euren kirol modalitatea ordezkatzeko autonomia erkidegoko eremuan, eta baliabideak jartzea euren estamentu guztiek eremu horretako lehiaketetan parte har dezaten.

e) Euren kirol modalitateari dagozkion federazio lizentziak izapidetzea, Euskadiko federazioek horiek eman ditzaten, azken horiek ezarritako baldintzekin eta prozedurarekin bat.

nes deportivas oficiales de ámbito autonómico de su modalidad deportiva.

Artículo 10.— Representación del deporte vasco.

1.— Las federaciones vascas ostentan la representación del deporte federado vasco en el ámbito estatal e internacional.

2.— Todas las federaciones territoriales deberán integrarse en la federación vasca de su modalidad deportiva.

Artículo 11.— Inexistencia de federación territorial o vasca.

1.— Si en un Territorio Histórico no existiera federación territorial de una modalidad deportiva, todas las funciones que corresponderían a la misma serán asumidas y ejercidas por la respectiva federación vasca. Si no existiera federación vasca, la Diputación Foral correspondiente podrá habilitar, por un periodo máximo de dos años, con carácter renovable, a una entidad deportiva para el ejercicio de las funciones públicas de aquella federación territorial.

2.— Si en una determinada modalidad deportiva no existiera federación vasca, el Gobierno Vasco podrá habilitar, por un periodo máximo de dos años, con carácter renovable, a una federación territorial o, en su defecto, a cualquier otra entidad deportiva para la asunción de funciones públicas propias de las federaciones vascas.

3.— La habilitación a entidades deportivas para el ejercicio de funciones públicas de carácter administrativo deberá ir precedida del informe del Consejo Vasco del Deporte, a través de su Comisión Permanente.

Artículo 12.— Funciones de las federaciones territoriales.

Son funciones de las federaciones territoriales:

a) Organizar la actividad deportiva federada en su ámbito territorial.

b) Organizar competiciones oficiales y actividades en su respectivo territorio histórico, en todas y cada una de las disciplinas de su modalidad deportiva.

c) Establecer sus propias normas de participación y competición, sin perjuicio de la aplicación, en su caso, de las normas dictadas por federaciones de ámbito territorial superior.

d) Ostentar la representación de su modalidad deportiva en el ámbito autonómico e instrumentar la participación de todos sus estamentos en competiciones de dicho ámbito.

e) Tramitar las licencias federativas de su modalidad, para su expedición por la federación vasca conforme a los requisitos y el procedimiento establecido por ésta.

f) Euren jarduera aurrera eramatean sortutako kirol arazoez arduratzea eta horiek konpontzea, organo judizialek eta kirol epaileen organoek ere euren aginpideak dituztela kontuan izanik.

g) Euren arautegiak bete daitezen zaintzea, eta arau horien arabera duten diziiplina ahalmena betetzea.

h) Euskadiko federazioari laguntzea kirolean debekatuta dauden substantziak, talde farmakologikoak eta arauz kanpoko metodoak erabil daitezen prebenitzen, kontrolatzen eta zigortzen, horretarako xedatuta dagoen araudiarekin bat.

i) Euskadiko federazioei laguntzea dagokien kirol modalitatean aritzen diren teknikariak eta epaileak prestatzen.

j) Euren baliabide ekonomikoen helburua zehaztea eta baliabideok esleitzea, beste erakunde batzuek euren jarduerarako transferitzen dizkieten baliabideak kudeatzea, eta euren baliabide guztiak ongi erabiltzen direla kontrolatzea.

k) Lurraldeko federazioen barruan diren klub eta elkarteentzako diru laguntzak esleitzea, eta aplikatzen direla kontrolatzea.

l) Euskadiko administrazioei laguntzea kirola sustatzeko helburuetan, eta, bereziki, legeak federazioei zuzenean ematen dizkien lankidetzako eta aholkularitzako funtzio jakinetan.

m) Euren estatutuak eta arautegiak egitea.

n) Dagozkien kirol modalitatean eta lurralde eremuan, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzea eta, ahal den heinean, bermatzea.

o) Eta, oro har, dagokien kirol modalitatearen jarduera sustatzeko eta hobetzeko komeni den guztia xedatzea.

13. artikulua.– Euskadiko federazioen funtzioak.

1.– Euskadiko federazioek honako funtzioak hauek dituzte:

a) Dagozkien kirol modalitatea ordezkatzea Estatuan eta nazioartean, eta, hala dagokionean, euren federazioa beste erakunde batzuei atxikitzeko era zehaztea.

b) Dagozkien lurraldeko federazioen jarduera koordinatzea.

c) Lehiaketa eta jarduera ofizialak antolatzea autonomia erkidegoko eremuan, euren kirol modalitateari dagozkien kirol diziiplina guztietarako.

d) Parte hartzeko eta lehiatzeko euren arauak ezartzea; betiere, haien eremuaz gaindiko lurralde eremua duten federazioek ezarritako arauak betez, hala dagokionean.

f) Conocer y resolver los conflictos deportivos que se originen en el desarrollo de su actividad, sin perjuicio de la competencia de los órganos judiciales y arbitrales.

g) Velar por el cumplimiento de sus normas reglamentarias y ejercer la potestad disciplinaria con arreglo a las mismas.

h) Colaborar con la federación vasca en la prevención, control y represión del uso de sustancias y grupos farmacológicos prohibidos y métodos no reglamentarios en el deporte, conforme a la normativa que al efecto se determine.

i) Colaborar con la federación vasca en la formación de las y los técnicos y jueces que desarrollan su actividad en la respectiva modalidad.

j) Establecer el destino y la asignación de los recursos económicos propios, gestionar los recursos que les transfieran otras entidades para el desarrollo de su actividad, y controlar la correcta aplicación de todos sus recursos.

k) Asignar y controlar la aplicación de las subvenciones que concedan a los clubes y agrupaciones deportivas adscritas a ellas.

l) Colaborar con las administraciones del País Vasco en el cumplimiento de sus fines de promoción deportiva y, en particular, en aquellas funciones de cooperación y asesoramiento que la Ley atribuye directamente a las federaciones.

m) Elaborar sus estatutos y reglamentos.

n) Promover y, en la medida de lo posible, garantizar, la igualdad de mujeres y hombres en la práctica de su modalidad deportiva en su ámbito territorial.

o) Y, en general, disponer cuanto convenga para la promoción y mejora de la práctica de su modalidad deportiva.

Artículo 13.– Funciones de las federaciones vascas.

1.– Son funciones de las federaciones vascas:

a) Ostentar la representación de la modalidad deportiva en el ámbito estatal e internacional y definir, en su caso, el régimen de adhesión de la federación a otras entidades.

b) Coordinar la actividad de las federaciones territoriales que la integren.

c) Organizar competiciones oficiales y actividades de ámbito comunitario en todas y cada una de las disciplinas de su modalidad deportiva.

d) Establecer las normas de participación y competición propias, sin perjuicio de la aplicación, en su caso, de las normas dictadas por federaciones de ámbito territorial superior.

e) Baliabideak jartzea euren estamentu guztiek Estaturuko eta nazioarteko lehiaketetan parte har dezaten.

f) Dagokien kirol modalitatearen federazio lizentziak ematea.

g) Euren jarduera aurrera eramatean sortutako arazoz arduratzea eta horiek konpontzea, organo judizialek eta kirol epaileen organoek ere euren aginpideak dituztela kontuan izanik.

h) Euren arautegiak bete daitezzen zaintzea, eta arau horien arabera duten diziiplina ahalmena betetzea.

i) Euskal administrazioari laguntzea kirolean debekatuta dauden substantziak, talde farmakologikoak eta arauz kanpoko metodoak erabil daitezzen prebenitzen, kontrolatzen eta zigortzen, horretarako xedatuta dagoen araudiarekin bat.

j) Dagokien kirol modalitateko teknikariak eta epai-leak prestatzea, horretarako ezarriko den araudiarekin bat.

k) Euren baliabide ekonomikoen helburua zehaztea eta baliabideok esleitzea, beste erakunde batzuek euren jarduerarako transferitzen dizkieten baliabideak kudeatzea, eta euren baliabide guztiak ongi erabiltzen direla kontrolatzea.

l) Lurraldeko federazioentzako, eta, hala dagokionean, kirol klub eta elkarteentzako diru laguntzak esleitzea, eta aplikatzen direla kontrolatzea.

m) Euskadiko administrazioei laguntzea kirola sustatzeko helburuetan, eta, bereziki, legeak federazioei zuzenean ematen dizkien lankidetzako eta aholkularitzako funtzio jakinetan.

n) Euren estatutuak eta arautegiak egitea.

o) Dagokien kirol modalitatean eta lurralde eremuan, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzea eta, ahal den heinean, bermatzea.

p) Eta, oro har, dagokien kirol modalitatearen jarduera sustatzeko eta hobetzeko komeni den guztia xedatzea.

2.– Euskadiko federazioek lurraldeko federazioen jarduera koordinatzeko beharrezko diren neurri organiko eta funtzionalak hartuko dituzte, bateratuak ez diren jarduerak saihestearren, ahaleginak optimizatzearen, eta euren kirol modalitateko Euskadiko federazio sisteman ekintza batasuna lortzearen.

3.– Koordinazio funtzioak subsidiarioki beteko dira, funtzio horien helburuak lankidetzaren edo partaidetzaren bidez ezin lor daitezkeenean.

14. artikulua.– Administrazio funtzio publikoak.

1.– Beste funtzio batzuez gain, Euskadiko federazioek eta lurraldeko federazioek administrazio funtzio

e) Instrumentar la participación de todos sus estamentos en competiciones estatales e internacionales.

f) Expedir las licencias federativas de su modalidad.

g) Conocer y resolver los conflictos que se originen en el desarrollo de su actividad, sin perjuicio de la competencia de los órganos judiciales y arbitrales.

h) Velar por el cumplimiento de sus normas reglamentarias y ejercer la potestad disciplinaria con arreglo a las mismas.

i) Colaborar con la administración en la prevención control y represión del uso de sustancias y grupos farmacológicos prohibidos y métodos no reglamentarios en el deporte, conforme a la normativa que al efecto se determine.

j) Formar las y los técnicos y jueces de su modalidad conforme a la normativa que al efecto se determine.

k) Establecer el destino y la asignación de los recursos económicos propios, gestionar los recursos que les transfieran otras entidades para el desarrollo de su actividad, y controlar la correcta aplicación de todos sus recursos.

l) Asignar y controlar la aplicación de las subvenciones que concedan a las federaciones territoriales y, en su caso, a los clubes y agrupaciones deportivas.

m) Colaborar con las administraciones del País Vasco en el cumplimiento de sus fines de promoción deportiva, y, en particular, en aquellas funciones de cooperación y asesoramiento que la Ley atribuye directamente a las federaciones.

n) Elaborar sus estatutos y sus reglamentos.

o) Promover y, en la medida de lo posible, garantizar, la igualdad de mujeres y hombres en la práctica de su modalidad deportiva en su ámbito territorial.

p) Y, en general, disponer cuanto convenga para la promoción y mejora de la práctica de su modalidad deportiva.

2.– Las federaciones vascas adoptarán las medidas orgánicas y funcionales necesarias para coordinar la actividad de sus federaciones territoriales al objeto de evitar acciones divergentes, de optimizar esfuerzos y de conseguir una unidad de acción en el sistema federativo vasco de la correspondiente modalidad deportiva.

3.– Las funciones de coordinación serán ejercidas de forma subsidiaria cuando los objetivos que persiguen no sean posibles de alcanzar a través de la cooperación o colaboración.

Artículo 14.– Funciones públicas de carácter administrativo.

1.– Además de otras funciones, las federaciones vascas y las federaciones territoriales ejercen funciones pú-

publikoak betetzen dituzte, eta, halakoetan, dagokion administrazioaren agente laguntzaile gisa jarduten dute.

2.– Dagokion administrazioaren irizpidearen, babesaren eta kontrolaren pean, kirol federazio horiek honako administrazio funtzio publiko hauek betetzen dituzte, eskuordetzan:

a) Lehiaketa ofizialak kalifikatzea, arautzea, antolatzeta eta baimentzea.

b) Euskadiko kirolak Estatuko eta nazioarteko lehiaketetan izango duen ordezkartza arautzea.

c) Federazio lizentzia ematea eta izapidetzea.

d) Kirol jardueretako indarkeria prebenitzea, kontrolatzea eta zigortzea.

e) Dopatzea prebenitzea, kontrolatzea eta zigortzea.

f) Kirolean duten diziiplina ahalmena baliatzea.

g) Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazpenak gauzatzea.

h) Euren estatutuak eta arautegiak onartzea.

i) Administrazio publikoari laguntzea haren kirol programetan, eta haietan parte hartzea, bereziki honako haueetan: goi mailako kirolarientzako programetan; eskola kiroleko programetan; emakumezkoen eta gizonzkoen arteko berdintasuna sustatzeko programetan; eta administrazio publikoak antolatzen dituen eta interes orokorrekoak diren programetan.

j) Federazioetako hauteskundeak kontrolatzea.

3.– Kirol federazioek eskuordeturiko administrazio funtzio publikoak betetzean xedatutako egintzek bat etorri beharko dute administrazio prozedura erkidea arautzen duten araei dagozkien printzipio gidariekin.

4.– Aurreko idatz-zatian zehazturiko egintzen kontrako errekurtsioak jarri ahal izango dira dagokien lurralde historikoko edo Eusko Jaurlaritzako organoaren aurrean; errekurtsio horien inguruko ebazpenekin amaituko da administrazio bidea. Errekurtsio horien erregimena izango da 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak gora jotzeko errekurtsioetarako ezarritako erregimen bera, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak ebatzi beharreko errekurtsioen kasuan izan ezik.

5.– Kirol administrazioak bere esku dagoen aholkularitza teknikoa eskainiko die kirol federazioei, funtzio publikoak egoki bete ditzaten.

15. artikulua.– Funtzioak eskuordetzea.

1.– Kirol federazioek ezin izango dute inola ere eskuordetu, dagokion administrazio baimena gabe, haiei

blicas de carácter administrativo, actuando en este caso como agentes colaboradores de la Administración correspondiente.

2.– Bajo los criterios, tutela y control de la Administración correspondiente, dichas federaciones deportivas ejercen, por delegación, las siguientes funciones públicas de carácter administrativo:

a) La calificación, ordenación, organización y autorización de las competiciones oficiales.

b) La ordenación de la representación del deporte vasco en las competiciones estatales e internacionales.

c) La emisión y tramitación de las licencias federativas.

d) La prevención, control y sanción de la violencia en la práctica del deporte.

e) La prevención, control y sanción del dopaje.

f) El ejercicio de la potestad disciplinaria deportiva.

g) La ejecución de las resoluciones del Comité Vasco de Justicia Deportiva.

h) La aprobación de sus estatutos y reglamentos.

i) La participación y colaboración con la Administración pública en el desarrollo de sus programas deportivos, en especial en los programas para deportistas de alto nivel, en los programas de deporte escolar, en los programas de promoción de igualdad de hombres y mujeres y en aquellos programas de interés general que organice aquella.

j) El control de los procesos electorales federativos.

3.– Los actos que se dicten por las federaciones deportivas en el ejercicio de las funciones públicas delegadas se ajustarán a los principios inspiradores de las normas reguladoras del procedimiento administrativo común.

4.– Los actos señalados en el apartado anterior son susceptibles de recurso ante el órgano correspondiente de los Territorios Históricos o del Gobierno Vasco, cuya resolución agotará la vía administrativa. Tal recurso tendrá el régimen establecido para el recurso de alzada en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, a excepción de aquellos recursos cuyo conocimiento corresponde al Comité Vasco de Justicia Deportiva.

5.– Para el adecuado ejercicio de las funciones públicas, la Administración deportiva competente ofrecerá a las federaciones deportivas el asesoramiento técnico de que disponga.

Artículo 15.– Delegación de funciones.

1.– En ningún caso, las federaciones deportivas podrán delegar, sin la autorización administrativa corres-

eskuordetu zaizkien funtzio publikoak betetzea. Dituzten ezaugarriengatik eskuorde daitezkeen funtzioetarako baino ez da emango baimen hori.

2.– Euskadiko federazioek eta lurraldeko federazioek eskuordetu ahal izango diete funtzio publikoak betetzea, aurretik aipaturiko administrazio baimena dutela, dagozkien lurraldeko federazioak edo Euskadiko federazioak ordezkatzan dituzten elkarteei.

16. artikulua.– Lankidetzako eta partaidetzako hitzarmenak. Programa-kontratua.

1.– Lurraldeko federazioek eta Euskadiko federazioek euren funtzioak, hurrenez hurren, lurralde historikoetako foru organoekiko eta Eusko Jaurlaritzako organoekiko lankidetzan beteko dituzte. Horretarako, elkarrekin lankidetzan hitzarmenak egin ahal izango dituzte, helburuak, kirol programak, aurrekontuak eta eskuordeturiko funtzio publikoei zuzenean loturiko gainerako alderdiak zehazteko. Hitzarmen horien izaera juridiko administratiboa izango da.

2.– Kirol federazioek, era berean, programa-kontratuak egin ahal izango dituzte dagokien administrazioekin. Programa-kontratu horietan honako hauek sartuko dira, gutxienez: federazioek eginiko aurrekontu aurreikuspenak; lortu beharreko helburu zehatzak edo kuantifikagarriak; eta helburuok balioztatzeke nahiz haien kontuak ikuskatzeko mekanismoak.

3.– Kirol federazioek, euren funtzioen alorrean, lankidetzan eta partaidetzan hitzarmenak egin ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko zein kanpoko kirol erakunde publiko eta pribatuekin, kirol jarduera eta lehiaketak batera aurrera eramatearren. Bereziki, Euskal Herriko bertako kirolak garatzea eta haietan jardutea bultzatzen duten beste euskal lurralde edo erkidego batzuetako erakundeekin lankidetzan aritzeko formulak sustatu ahal izango dituzte kirol federazioek.

4.– Lurraldeko federazioek eta Euskadiko federazioek laguntza eman beharko diete ezgaitasunen bat (fisikoa, psikikoa, sentsoriala, edo mistoa) duten herritarren kirol jardueraz arduratzen diren kirol federazioei, herritar horiek erabat gizartera daitezzen laguntzearen eta behar duten laguntza tekniko ematearren.

5.– Lurralde historiko bereko hainbat kirol modalitateko lurraldeko federazioek, bai eta Euskadiko federazioek ere, lankidetzan hitzarmenak egin ahal izango dituzte, baterako programak aurrera eramatearren.

17. artikulua.– Jardueren ardura hirugarren pertsonen edo erakundeei ematea.

1.– Kirol federazioek funtzio publikoak betetzeari loturiko jarduera material, jarduera tekniko edo zerbitzu jardueren ardura hirugarren pertsona edo erakunde batzuei eman ahal izango diete, eraginkortasun arra-

pondiente, el ejercicio de las funciones públicas que le han sido delegadas. La autorización sólo podrá concederse en relación con aquellas funciones que, por su propia naturaleza, sean susceptibles de delegación.

2.– Las federaciones vascas y territoriales podrán delegar, con la citada autorización administrativa previa, dicho ejercicio de funciones públicas en las asociaciones representativas de las federaciones territoriales o vascas correspondientes.

Artículo 16.– Convenios de colaboración y cooperación. Contratos-programa.

1.– Las federaciones territoriales y las federaciones vascas desarrollarán sus funciones en colaboración con los órganos forales de los territorios históricos y del Gobierno Vasco respectivamente. A tal efecto, podrán suscribir entre sí convenios de colaboración al objeto de determinar los objetivos, programas deportivos, presupuestos y demás aspectos directamente relacionados con las funciones públicas delegadas. Tales convenios tendrán naturaleza jurídico-administrativa.

2.– Las federaciones deportivas también podrán suscribir con las administraciones públicas correspondientes contratos-programa en los que se incluirán, como mínimo, las previsiones de financiación de aquellas, los objetivos concretos o cuantificables a alcanzar así como los mecanismos para evaluación y auditoría de dichos objetivos.

3.– Las federaciones deportivas, en el ámbito de sus funciones, podrán concertar convenios de colaboración o cooperación con las entidades deportivas públicas o privadas radicadas dentro o fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el desarrollo de actividades y competiciones deportivas comunes. En especial, las federaciones deportivas podrán promover fórmulas de colaboración con aquellas entidades de otros territorios o comunidades vascas que fomenten la práctica y el desarrollo de los deportes autóctonos de Euskal Herria.

4.– Las federaciones territoriales y vascas deberán colaborar con las federaciones deportivas encargadas de la práctica deportiva por la ciudadanía que padezca minusvalías físicas, psíquicas, sensoriales o mixtas al objeto de contribuir a su plena integración social y al objeto de proporcionar la asistencia técnica que precisen.

5.– Las federaciones territoriales de diferentes modalidades pertenecientes al mismo Territorio Histórico, así como las federaciones vascas, podrán suscribir entre sí convenios de colaboración para el desarrollo de programas comunes.

Artículo 17.– Encomienda de actuaciones a terceras personas o entidades.

1.– Las federaciones deportivas podrán encomendar a terceras personas o entidades actuaciones de carácter material, técnico o de servicios relativas al ejercicio de funciones públicas de carácter administrativo por razo-

zoiengatik, edota jarduera horiek aurrera eramateko baliabiderik egokienak izan ezean.

2.– Kudeatzeko gomendio horrek ez du berekin ekarriko administrazio funtzio publikoak lagatzea edo eskuordetzea.

18. artikulua.– Zuhurtziatzko neurriak.

1.– Euskadiko federazioei eta lurraldeko federazioei ematen zaizkien funtzio publikoak bete egiten direla bermatzeko, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek honako jarduera hauek aurrera eramanez ahaliko dituzte, bakoitzak dituen eskumenen barruan eta zigortzeko helbururik gabe:

a) Federazioen liburuak eta agiriak ikuskatzea.

b) Kide anitzeko organoei dei egitea eskuordetutako funtzio publikoak betetzearekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten gai guztiak eztabaidatzeko eta ebazteko, baldin organo horiei aurretik dei egin ez bazaie.

c) Zuhurtziaz kargutik kentzea federazioko lehendakaria eta organoetako gainerako kideak, arrazoiak emanez, diziplina espediente irekitzen zaienean, ustez larriak edo oso larriak diren administrazio edo diziplinako arau-hausteengatik, azken horiek eskuordeturiko funtzio publikoekin zuzeneko edo zeharkako lotura dutenean.

d) Zuhurtziaz kargutik kentzea federazioko lehendakaria eta gobernu organoetako gainerako kideak, arrazoiak emanez, eskuordeturiko funtzio publikoak bertan behera uzten diren kasuetan.

e) Kontabilitateari eta kudeaketari kontu ikuskapekarak eta bestelako kontrol batzuk egin dakizkiela eskatzea.

